BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2531

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 15ekoa, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bitartez, Enplegu Zentro Berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateen 2013ko ekitaldiko finantzaketarako laguntzen –apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuan araututakoen– deialdia –erakunde autonomo honen Administrazio Kontseiluaren Akordio bidez onartua– argitaratzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 13ko bileran hartutako Erabakiaren bitartez, Enplegu Zentro Berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateen finantzaketarako laguntzen –apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuan araututakoen– deialdia onartu du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, eta, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bitartez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluaren p) idatzi-zatian xedaturikoarekin bat etorriz, erakunde autonomo honen zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Adierazitako guztiarengatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegu Zentro Berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateen finantzaketarako laguntzen –apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuan araututakoen– deialdia –erakunde autonomo honen Administrazio Kontseiluak 2013ko maiatzaren 13ko bilkuran, Ebazpen honen Eranskin gisa bildurikoan, hartutako Akordioaren bitartez onartua– argitaratzea.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea deialdia onartzen duen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabakiaren kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 15a.

Lanbide euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

ENPLEGU ZENTRO BEREZIETAN LANBIDE JARDUERARI LAGUNTZEKO UNITATEEN 2013KO EKITALDIKO FINANTZAKETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Desgaitasuna duten pertsonak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42.1 artikuluak Enplegu Zentro Bereziak definitzen ditu; produkzio-lana egitea da Enplegu Zentro Berezien helburu nagusia, merkatu-eragiketetan erregulartasunez parte hartuz, desgaitasuna duten langileei ordaindutako enplegu bat eta behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuak ziurtatzeko xedea izanik, eta desgaitasuna duten ahalik eta pertsona gehien lan-erregimen normalizatuan txertatzeko baliabidea izanik.

Apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuak lanbide-jarduerari Laguntzeko Unitateak arautzen ditu Enplegu Zentro Berezien egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan.

Enplegu Zentro Berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuak, Desgaitasuna duten pertsonak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42.2 artikuluaren arabera, «errehabilitaziozkoak, terapeutikoak, gizarteratzekoak, kultura-integraziokoak eta kirol-esparrukoak dira, Enplegu Zentro Bereziko langile desgaituari errehabilitazio pertsonal handiagoa eta bere harreman sozial hobea eskaintzen dizkiotenak».

Egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuak desgaitasuna duten pertsonak erabat gizarteratzea lortzeko funtsezko bidea dira. Zerbitzu horien eginkizunak honako honetara bideratuta daude: desgaitasuna duten langileek lanpostu batean erabat txertatzeko prozesuan izan ohi dituzten oztopoei aurre egitea eta oztopo horiek gainditzea ez ezik, lanpostu horretan geratzea ahalbidetzen dien lan-egokitzea, bereziki, zailtasun bereziak dituzten langileen kasuan.

Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateak lanbide anitzeko taldeak dira, hainbat eginkizun gauzatuz, Enplegu Zentro Berezietan desgaitasuna duten langileek izan ohi dituzten oztopoak edo trabak gainditzen laguntzea ahalbidetzen dutenak, lanpostuan txertatzeko prozesuan, eta baita lanpostu horretan geratzeko helburuan ere, bereziki, laneratzeko oso zailtasun handiak dituztenei dagokienez, hala nola % 65eko edo goragoko desgaitasun-maila aitortua izanik garun-paralisia dutenei, gaixotasun mentalen bat edota adimen-desgaitasunen bat dutenei eta desgaitasun fisiko edo zentzumen-desgaitasunen bat dutenei dagokienez.

Nabarmendu beharrekoa da adimen-desgaitasunen bat eta buru-nahasmenduren bat duten langileek EAEn lortu duten enplegu-bolumen handia (Euskadiko EZB guztietako langileen % 50 dira ia). Hori dela-eta, lanpostuetara egokitzeko eta enplegu egonkor eta kalitatekoan gora egiteko beharrezkoak diren lanbide-gaitasunak eskuratzeko ibilbide indibidualizatuetarako laguntza bermatuko duten langile espezializatuez hornitu behar dira zentro horiek.

Horrela, Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateetan txertaturiko langileek hainbat eginkizun dituzte, besteak beste, honako hauek: pertsona eta horren lanpostua aztertuz, desgaitasuna duen langileak bere jarduera gauzatzeko dituen laguntza-premiak atzematea, enpleguan txertatzeko eta enpleguari eusteko pizgarri gisa balio izateko familia- eta gizarte-ingurunearekin izan beharreko harremanak ezartzea, langile desgaituaren autonomia eta independentzia faboratzea, desgaitua lanpostura egoki dadin lortzeko behar diren prestakuntza-programa guztiak garatzea, eta langileari lan-merkatu arruntean txertatzen laguntzea.

Horregatik guztiagatik, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2013ko maiatzaren 13an egindako

bileran Enplegu Zentro Berezietako Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateen finantzaketarako laguntzen deialdia onartu zuen, honako baldintza hauek kontuan hartuta:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Enplegu Zentro Berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateen finantzaketarako diru-laguntzen –apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuan araututakoen– 2013rako deialdia arautzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

2. artikulua.– Finantzaketarako baliabide ekonomikoak.

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 4.000.000 euro da. Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketarik ez dago.

3. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzek Enplegu Zentroetako Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateetan kontratu mugagabea duten langileen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzako kostuak 2013ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte finantzatzeko helburua dute, betiere langile horiek apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako eginkizunak gauzatzen badituzte.

4. artikulua.– Diru-laguntzaren onuradunak.

1.– Nortasun juridiko propioa izaki eta honako eskakizun hauek betetzen dituzten Enplegu Zentro Berezien titular diren erakundeek eta Zentro horiek izango dute deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun izateko aukera:

a) Enplegu Zentro Bereziak Enplegu Zentro Berezien Erregistroan halako gisa erregistratuta egotea.

b) Enplegu Zentro Berezien plantillan hurrengo artikuluan jasotako desgaitasun mota eta desgaitasun-maila dituzten langileak egotea.

c) Enplegu Zentro Bereziek hurrengo paragrafoan aurreikusitako osaera duten Laguntzeko Unitateak edukitzea.

2.– Enplegu Zentro Berezietako lanbide-jarduerari Laguntzeko Unitateen osaerak honako modulu hauekin bat etorri behar du:

a) 5. artikuluan deskribaturiko kasuetako batean dauden 15 langile desgaitu gehienez, Erdi Mailako edo Goi Mailako teknikari 1 (edo jakintza eta/edo esperientzia parekagarriak dituena), gutxienez bere lanaldiaren % 20 sartzen duena, eta produkzioan laguntzeko arduradun 1 lanaldi osoan, edo kontratazioa lanaldi partzialerako egiten den kasuan, proportzionalki dagokion kopurua.

b) 16-30 langile, Erdi Mailako edo Goi Mailako teknikari 1 (edo jakintza eta/edo esperientzia parekagarriak dituena), gutxienez bere lanaldiaren % 80 sartzen duena, eta produkzioan laguntzeko 2 arduradun lanaldi osoan, edo kontratazioa lanaldi partzialerako egiten den kasuan, proportzionalki dagokion kopurua.

c) 31-45 langile, Erdi Mailako edo Goi Mailako 2 teknikari (edo jakintza eta/edo esperientzia parekagarriak dituena), horietako bat lanaldi osoan eta besteak gutxienez bere lanaldiaren % 50

sartuz, eta produkzioan laguntzeko 3 arduradun lanaldi osoan, edo kontratazioa lanaldi partzialerako egiten den kasuan, proportzionalki dagokion kopurua.

d) 46-60 langile, Erdi Mailako edo Goi Mailako 2 teknikari (edo jakintza eta/edo esperientzia parekagarriak dituena) lanaldi osoan, eta produkzioan laguntzeko 4 arduradun lanaldi osoan, edo kontratazioa lanaldi partzialerako egiten den kasuan, proportzionalki dagokion kopurua.

c) 61-75 langile, Erdi Mailako edo Goi Mailako 3 teknikari (edo jakintza eta/edo esperientzia parekagarriak dituena), horietako bi lanaldi osoan eta besteak gutxienez bere lanaldiaren % 50 sartuz, eta produkzioan laguntzeko 5 arduradun lanaldi osoan, edo kontratazioa lanaldi partzialerako egiten den kasuan, proportzionalki dagokion kopurua.

f) 75 langile baino gehiago izanez gero, proportzionalki ezarriko da Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitatearen plantilla, aurretiaz adierazitako irizpideei jarraiki.

Hurrengo artikuluan ezarritako desgaitasun mota eta desgaitasun-maila duten langileen kopurua (zerbitzua langile horiei zuzenduta dago) modulu bakoitzari dagokion mugarekin bat ez badator, Lanbide-jarduerari Laguntzeko Unitateko langileek sartutako denborak desgaitasuna duten langile horien kopuruarekiko proportzionaltasunari eutsiko dio.

Justifikaturiko kausak direla-eta Unitate horiek osatzen dituzten langileen artean lanpostu hutsik geratzen bada, arestian ezarritako proportzionaltasunari eusteko bete beharko dira lanpostu huts horiek.

5. artikulua.– Azken jasotzaileak.

Programa honen azken jasotzaileak Enplegu Zentro Berezietako langile desgaituak izango dira, betiere ondoren deskribaturiko kasuren batean badaude:

a) % 33ko edo goragoko desgaitasun-maila aitortuta izanik garun-paralisia, gaixotasun mentalen bat edo adimen-desgaitasunen bat duten pertsonak.

b) % 65eko edo goragoko desgaitasun fisikoko edota sentsorialeko maila aitortuta duten pertsonak.

6. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Diru-laguntzaren zenbatekoa urteko zenbateko finko bat izango dela ezartzen da aurreko artikuluan adierazitako desgaitasun mota eta desgaitasun-maila dituen eta denbora mugagaberako lanaldi osoan edota sei hilabeteko edo gehiagoko aldi baterako kontratu bidez kontrataturiko pertsona bakoitzeko. Kontratu mugagabearen kasuan, diru-laguntza urteko 1.200 euro izango da, eta aldi baterako kontratuen kasuan, aldiz, 600 euro.

Horretaz gain, diru-laguntza lanaldiaren proportzioari jarraiki murriztuko da Laguntzeko Unitateko langileen nahiz azken jasotzaileen kontratua lanaldi partzialerako denean.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoak inola ere ezin izango ditu gainditu, bakarrik edota beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edota baliabideekin batera, denbora mugagaberako kontrataturiko Laguntzeko Unitateetako langileen soldata-kostuak edo Gizarte Segurantzako kostuak, diruz lagundutako denbora-tarteari dagozkionak.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, eta honako toki hauetan eskuratu ahal izango da hori: http://lanbide.net web-orrian, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan edo Lanbideren Lurralde-bulegoetan.

Horretaz gain, eskabideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

2.– Eskabide-orriarekin eta horren A, B, C eta D eranskinekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) LJLUren memoria deskribatzailea, gutxienez ere honako hauek zehaztuz:

- Kokapen fisikoaren xehetasunak.
- Jardun-esparrua.
- Unitatearen osaera, teknikariak eta arduradunak bereizita.
- Organigrama funtzionala.

b) Urteko Kudeaketa-plana, gutxienez ere honako hauek zehaztuz:

- Lortu beharreko helburuak.
- Ekintzak gauzatzeko tenporalizazioa.
- LJLU osatzen duten langileen eginkizunen deskribapena.
- Eskura dituen azpiegitura, baliabideak eta bitarteko instrumentalak.
- Zerbitzua emateko baldintzak.

c) NANaren fotokopia, betiere Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan nortasun-datuen egiaztapen elektronikoa baimendu ez bada, eta eskabidea sinatzen duen pertsonak duen ordezkaritzaren egiaztagiria.

d) Lanbide-jarduerari Laguntzeko Unitateetako langileen (horien kontratazioa diruz laguntzen da) urteko ordainsari gordina egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Hirugarren Interesdunaren Datuen Altari buruzko Fitxa, eskatzaileak eta dagokion banketxeak izenpetu eta zigilatuta.

3.– Eskabideak deialdi honetan eskaturiko baldintzak betetzen ez baditu, hamar eguneko epean falta edo akatsa konpontzeko eskatuko zaio interesdunari. Hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu horrek.

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

8. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Lanbideko Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritzak bere gain hartuko du eskabideak kudeatu eta izapidetzeko ardura, eta Lanbideko zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

2.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak emango dira. Programa honen finantziazioari esleitutako baliabide ekonomikoak behar adinakoak ez badira onartu behar diren eskabide guztiak estaltzeko, bakoitzari legokiokeen laguntzaren proportzioaren arabera banatuko dira funtsak, betiere baliabide ekonomikoen mugaketa kontuan hartu gabe, eta 9. artikuluan aurreikusitako balioespen-irizpideei jarraiki. Horretarako, kide anitzeko organoa sortuko da, eta organo horrek emango du ebazpen-proposamena. Aipatutako organoa honako kide hauek osatuko dute:

● Presidentea: Juan Miguel Fernández Rosales, Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritzaren barruko Enplegua Sustatzeko Arloaren arduraduna

● Bokalak:

○ Luis Francisco Oruesagasti Diez, teknikaria.

○ Iñaki Mendizabal Palacio, teknikaria eta idazkaria.

3.– Prozedura ebazteko eta ebazpen hori jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren ebazpenik jakinarazten ez bada, eskabidea baztertutzat jo ahalko da.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari eta ebazpen horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita edo zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

9. artikulua.– Eskabideak balioesteko eta esleitzeko irizpideak.

Deialdi honetara aurkeztutako eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko, baliabide ekonomikoak baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko adinakoak ez direnean, eskabideak balioetsiko dira honako irizpide eta parametro hauek kontuan hartuta:

1.– Kontratu mugagabea izanik desgaitasunen bat duten langileen ehunekoa Enplegu Zentro Bereziko plantillaren barruan dauden langile desgaituen guztizko kopuruaren barnean: 4 puntu gehienez, honako eskala honi jarraiki:

● > % 75: 4 puntu

● % 51 - % 75: 3 puntu

● % 25 - % 50: 2 puntu

● < % 25: 1 puntu

2.– % 33ko edo goragoko desgaitasun-maila aitortua izanik garun-paralisia, gaixotasun mentalen bat edota adimen-desgaitasunen bat duten langileen eta % 65eko edo goragoko desgaitasun-maila aitortua izanik desgaitasun fisiko edo zentzumen-desgaitasunen bat duten langileen ehunekoa Enplegu Zentro Bereziko plantillaren barruan dauden langile desgaituen guztizko kopuruaren barnean: 4 puntu gehienez, honako eskala honi jarraiki:

- > % 75: 4 puntu
- % 51 - % 75: 3 puntu
- % 25 - % 50: 2 puntu
- < % 25: 1 puntu

3.– % 33ko edo goragoko desgaitasun-maila aitortua izanik garun-paralisia, gaixotasun mentalen bat edota adimen-desgaitasunen bat duten emakumezkoen eta % 65eko edo goragoko desgaitasun-maila aitortua izanik desgaitasun fisiko edo zentzumen-desgaitasunen bat duten emakumezkoen ehunekoa Enplegu Zentro Bereziko plantillaren barruan dauden langileen artean desgaitasun mota eta desgaitasun-maila hori dutenen guztizko kopuruaren barnean: 4 puntu gehienez, honako eskala honi jarraiki:

- > % 75: 4 puntu
- % 51 - % 75: 3 puntu
- % 25 - % 50: 2 puntu
- < % 25: 1 puntu

4.– Enplegu Zentro Berezitik datozen, lan-merkatu arruntean sartu diren eta kontratu mugagabea edota gutxienez sei hilabeteko lan-kontratua duten langile desgaituen guztizko kopuruak duen ehunekoa Zentroko langile desgaituen guztizko kopuruaren barnean, azken bi urteetan: 4 puntu gehienez, honako eskala honi jarraiki:

- > % 75: 4 puntu
- % 51 - % 75: 3 puntu
- % 25 - % 50: 2 puntu
- < % 25: 1 puntu

10. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzeko modua.

Diru-laguntzak ordainketa bakar batean ordainduko dira esleitzen direnean, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme-erregimena aplikatu beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako bermeen eta diru-laguntzen itzuleraren sistema orokorra arautzen duen eta hura kudeatzen duen erakunde laguntzaileen baldintzak, erregimena eta obligazioak ezartzen dira arestian aipaturiko Dekretuan.

11. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntzaren onuraduna izateko, erakundeak honako hauek aurkeztu beharko ditu 2014ko martxoaren 31 baino lehen:

– Laguntzeko Unitateen jarduerari buruzko memoria, diruz lagundutako aldiari dagokiona.

– Laguntzeko Unitateetan denbora mugagaberako kontrataturiko langileen nominen –diruz lagundutako aldikoen– kopia, eta Gizarte Segurantzako kotizazio-dokumentuen –TC2 eredukoen eta aipaturiko aldikoen– kopia.

Dokumentazioa aurreikusiriko epean aurkezten ez bada edo aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ordainduriko diru-laguntzaren zenbatekoak Laguntzeko Unitateetan denbora

mugagaberako kontrataturiko langileen soldata-kostua eta Gizarte Segurantzako kostua gainditzen dituela, ateratze-prozedura abiaraziko da, 16. artikuluan aurreikusiriko prozedurarekin bat etorrita.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintza orokorrak.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak eman eta ordaintzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Enpresa eskatzaileek beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituztela egiaztatzea.

Diru-laguntzak eskatzen dituzten enpresek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3. artikuluak xedatzen duenari jarraiki.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zigor-prozedura amaitzea.

Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertaturikoak barne.

13. artikulua - Onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunaren betebehar izango dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.

c) Diru-laguntza emateko bete beharreko betekizunak eta baldintzak bete direla egiaztatzea.

c) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiko esku-hartze organoek, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin beharreko egiaztatze-jardunen eraginpean jartzea.

d) Helburu berberarekin edo antzekoarekin beste edozein Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntza edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea.

e) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako gorabehera edo egoeretatik edozein aldatzen bada gerora, aldaketa objektiboa zein subjektiboa izan, horren berri eman behar du onuradunak.

14. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatu den aldaketa orok emandako diru-laguntza aldatzea ekarri ahal izango du, deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira, betiere. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

15. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat etortzea.

Orokorrean, deialdi honetan deskribatutako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin; nolanahi ere, hainbat finantzaketa-iturritatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango ditu gainditu diruz lagundutako aldian Laguntzeko Unitateetan denbora mugagaberako kontrataturiko pertsonen soldata-kostua eta Gizarte Segurantzako kostua. Kostu hori gaindituz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

16. artikulua.– Betebeharrak ez betetzea eta itzulketako prozedura.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntza jaso duten erakunde onuradunak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude, edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbideko zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du; ebazpen horren bitartez, jasotako kopuruak osorik edo zati batean itzuli behar dituztela adieraziko du, eta kopuru horiei diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrerako legezko interesak erantsi beharko zaizkie, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, hala xedatuta baitago abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra.

2.– Lanbide euskal Enplegu Zerbitzuak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntzaren onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, alegazioak edo egokitzat jotzen dituen egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio.

3.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo ez badira onartu, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena egingo du. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

4.– Ebazpenak arauren bat bete gabe utzi dela iritziz gero, eta diru-laguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat ematen badu, interesatuak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

Borondatezko aldian ez badira zenbateko horiek itzultzen, haiek premiamendu bidez berreskuratzeko izapideak hasiko dira.

17. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean xedatutakoari jarraikiz, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak haren jabetzako fitxategi automatizatuetan txertatuko ditu honako deialdi honetan araututako laguntzak eskatzeko orrien bidez eskuratutako datu pertsonalak.

Halaber, pertsona interesdunek datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak izango dituzte, legeak onartzen duen eran; horretarako, hori adierazten duen idazki bat igorri beharko diote Lanbide euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).